# munduak guztiontzat beharko luke

## UME ALAIA Elkartea

Patakon trenean doa, aulkian eserita. Alboan eseri zaizkio Anika eta bere ama. Anika neskato beltza da eta ama, zuria. Patakoni ikusmina piztu dio egoerak. Harritu egin da Anika eta ama euskaraz ari direla konturatzean.







NI ASKO IBILIA NAIZ MUNDUAN BARRENA, ETA EZ NUEN SEKULA IKUSI ZU BEZALAKO NESKA BELTZARAN BAT EUSKARAZ HITZ EGITEN
ETA NIK SEKULA EZ NUEN IKUSI BENETAKO PIRATA BAT
EGUN HANDIA DA, BERAZ, GAURKOA!


ZU AL ZARA BERE BENETAKO AMA?
BENETAKOA NAIZ, BAI, EZ NAIZ GEZURRETAKOA, EZTA?
NI EZ NINTZEN BERE TRIPATIK JAIO, BAINA NIRE AMA DA


AMA GUZTIEK EGITEN DUTENA EGITEN DU. MUXU EMATEN DIT OHERATZERAKOAN, ZAPATILETAKO LOKARRIAK LOTZEN ERAKUTSI DIT ETA ERRIETA EGITEN DIT BIHURRI SAMAR PORTATZEN NAIZENEAN


BAI, BAI, HORI GUZTIA EGITEN BADU, EZ DAGO INOLAKO ZALANTZARIK. EGI-EGITAKO AMA DA
ETA ZUK ERE EGI-EGITAKO PIRATA DIRUDIZU!







**UME ALAIA**
gipuzkoa
adopzio-familien elkartea
asociación de familias adoptivas

Ume Alaia Bizkaian jaio zen 1994an eta Gipuzkoan 2001ean, adoptatutako haurren guraso izatea modu arduratsu batean bizi eta gozatu nahi duten guraso batzuen ekimenari esker. Familientzat elkargune izan nahi du, pozak eta tristurak partekatzeko.



Topagune, mintegi eta ikastaroak antolatzen dituzte gurasoek eta seme-alabek elkarren berri izateko eta elkarrekin gauza berriak ikasteko.



**www.umealaia.com**

Ume alaia-Gipuzkoa:
Pº Zarategi, 100 - Edif. Txara 1
Intxaurrondo, 20015 Donostia

Ume alaia-Bizkaia: 3057 posta kutxa